

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Gure zerbitzuak erabiltzen dituen kanalak zuzenak dira, hots, gu gara komunikazio zein banaketaz arduratuko garenak.

Alde batetik, webgune bat osatuko dugu eta bertatik jakinaraziko eta azalduko dugu gure zerbitzuen nondik norakoak norakoak zeintzuk izango diren, zein klase dauden, non, noiz, bestelako ekintzak egiten baditugu... Webgunearen ekoizpena guk geuk egingo dugu, eta ez dugu inolako enpresarik kontratatuko web-a eguneratzeko edo mantentzeko. Hori merkeagoa izateaz gain, baliagarri zaigu guk nahi dugun mezua zabaltzea bermatuko dugulako, eta guk argi dugu zein mezu zabaltzea nahi dugun: osasuntsu, bertako eta alternatiboak diren sukaldaritza klase praktikoak.

Bestetik, bestelako ekintza eta informazio-bideak baliatuko ditugu gure zerbitzua zabaltzeko, sare sozialetan presentzia izango dugu ekintzak noiz izango diren abisatzeko. Horrez gain, kartelak ere jarriko ditugu inauguraziorako.

Nahiz eta banaketa kanal hauek ezartzea eta kudeatzea zailagoa izan daitekeen, etekin handiagoak lortu ahal izango ditugu ez dugulako beste enpresa bat azpi-kontratatu beharko eta guk nahi dugun mezua zabaltzea ahal izango dugu inolako oztopo edo gaizki ulerturik gabe.